

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1724

AGINDUA, 2009ko otsailaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide bat bere kargutik kendu eta, ondorioz, beste bat izendatzen duena.

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 12. artikuluan, lege hori garatuz Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5. eta 8. artikuluetan, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, eta EHIGE Gurasoen Elkartearren proposamenez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Miren Izagirre Alda andrea Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen guraso elkarteko ordezkari izateari utzi baitio.

Bigarrena.— Ana Puente Martínez andrea Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen guraso elkarteko ordezkari gisa. Izendapen hori Miren Izagirre Alda andreati bere agintaldia amaitzeko gelditzen zitzaien denborarako izango da.

AZKEN XEDAPENA

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 18a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1724

ORDEN de 18 de febrero de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone el cese y nombramiento de los miembros del Consejo Escolar de Euskadi.

De acuerdo con lo previsto en los artículos 12 de la Ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, 4, 5 y 8 del Decreto 55/1989, de 7 de marzo, por el que se regula el Consejo Escolar de Euskadi, en desarrollo de la anterior Ley, y 15 de la Orden de 4 de abril de 1990, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Escolar de Euskadi, y a propuesta de EHIGE Gurasoen Elkartea,

RESUELVO:

Primero.— Cesar como miembro del Consejo Escolar de Euskadi a doña Miren Izagirre Alda, por haber cesado como representante del colectivo de Padres y Madres del alumnado de enseñanza no universitaria de Euskadi.

Segundo.— Nombrar como miembro del Consejo Escolar de Euskadi a doña Ana Puente Martínez, en representación del colectivo de Padres y Madres del alumnado de enseñanza no universitaria de Euskadi, por el tiempo que restaba a doña Miren Izagirre Alda para la conclusión de su mandato.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.